AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

PRENTSA-OHARRA



Zuhaitz bat basoan erortzen da erakusketaren ikuspegia Azkuna Zentroan

Glenda León artistaren *Zuhaitz bat basoan erortzen da* erakusketa ikusteko azken egunak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon

- **Zientziaren, espiritualtasunaren eta politikaren arteko tirabirak aztertzen ditu erakusketak, eta irailaren 27ra arte dago ikusgai Erakusketa Aretoan**

- **Asteartean, irailaren 8an, Glenda Leónek Fernando Pérez eta Iván de la Nuezekin hitz egingo du Bastida Aretoan, erakusketa osatzen duten ideiei buruz**

- **Atzera begirako honen baitan, *Zuhaitz bat basoan erortzen da* argitalpena editatzen da. Bertan, artistaren ibilbidea zeharkatzen duten ideia, irudi eta prozesu konstelazio bat dago**

AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

Glenda León
Zuhaitz bat basoan erortzen da

Kuradore-taldea eta proiektuaren zuzendaritza
Fernando Pérez, Glenda León eta Iván de la Nuez

2026ko irailaren 27ra arte
Sala de Exposiciones

Informazio gehiago prentsa@azkunazentroa.eus postan
edo +34 648 77 33 73 telefonoan

Bilbo, 2026ko irailaren 4a.

*Zuhaitz bat basoan erortzen d*a erakusketak, Glenda Leonen (Habana, 1976) bakarkako lehen erakusketak, azken egunei aurre egiten die Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. Irailaren 27ra arte bisita daitekeen instalazioak espiritualtasunaren dimentsio unibertsalari buruzko hausnarketa proposatzen du, desberdintasun erlijiosoetatik harago, gizakiak batzen dituena aldarrikatuz.

Datorren asteartean, irailaren 8an, itxi aurretik, Glenda León artistak Fernando Pérez eta Iván de la Nuezekin solasean jardungo du. Hiruek batera osatzen dute erakusketa-proiektuaren talde kuratoriala eta zuzendaritza. Bastida Aretoan izango da, 18:30etan, eta sarrera doan izango da aretoa bete arte. Topaketak ibilbide bat proposatzen du artistaren sorkuntza prozesuan eta erakusketa artikulatzen duten ideietan barrena. Elkarrizketaren bidez, politika, espiritualtasuna, entzutea, isiltasuna edo arteak errealitateari buruz dugun pertzepzioa eraldatzeko duen gaitasuna aztertuko dituzte. Glenda Leonen unibertso sortzailera hurbiltzeko eta beste ikuspegi batzuetatik gelditu, behatu eta entzutera gonbidatzen duen erakusketaren gakoetan sakontzeko aukera.

Gainera, ostegunero, erakusketa itxi arte, zentroak 30 minutuko sarrera-bisitak proposatzen ditu, *Zuhaitz bat basoan erortzen da* lanaren gaiak testuinguruan kokatzen. Gehienez 25 lagunentzako lekua dago, eta sarrerak hiru euroko kostua du publiko orokorrarentzat, eta librea AZ txartela dutenentzat. Aldez aurretik izena eman behar da webgunean, lekuak bete arte.

Elkarri lotutako hiru esparru

Zuhaitz bat basoan erortzern da partitura koreografiko gisa pentsatua dago, non proposamen bakoitzak esperientzia berezi eta ireki bat aktibatzen duen. Instalazioa, argazkia, bideoa eta soinuaren artean dabilen hizkuntza hibrido baten bidez, musikarekin, hitzarekin eta gorputzarekin etengabeko elkarrizketan, artistak pertzepzio-

espazio bat eraikitzen du, non ikusgaia eta ikusezina, materiala eta espirituala gurutzatzen diren.

Erakusketa, Volotearen lankidetzarekin antolatuta, lotuta dauden hiru arlotan banatzen da erakusketa-proiektua. Lehenengoa arlo politiko eta sozialean ardaztuta dago, eta, bertan, lanek bizitza garaikideko tentsioak aztertzen dituzte: polarizazio ideologikoa, botere-mekanismoak, zentsura, aurrerapenaren kontraesanak eta arlo kolektiboan zein intimoan dauden gatazka-dinamikak.

Bigarren arloak natura lantzen du sistema interkonektatu gisa, eta hainbat fenomeno lotzen dituzten patroi komunak azaleratzen ditu. Hurbilketa zientifiko eta, aldi berean, poetiko baten bidez, ingurunearekiko harreman kontzienteagoa eta sentsorialagoa sustatuko duen begirada bat proposatzen da. Tximeleta-efektua, Ikusezinari buruz eta Munduaren inguruak piezek zalantzan jartzen dituzte ikusten dugunaren eta ustez ikusten dugunaren arteko mugak

Hirugarren arloa espiritualtasunera bideratuta dago. Proposatzen duen ikuspegiak desberdintasun erlijiosoak gainditzen ditu, eta esentzia partekatu batean ardazten da. Conversio lanaren kasua da, artistaren pieza berrienetako bat. Performance/instalazio horrek aurrez jorratutako gai asko biltzen ditu, eta kultura, egoera eta mundu garaikidea ikusteko modu desberdinen arteko elkarrizketa sortzeko gai den hausnarketa-sistema bat eraikitzen du.

Glenda Leónen obran barrena egindako ibilbide hau areto nagusitik harago doa, Atariko AZ Irratiaren espazioan, Jainkoarekin hizketan (2018) pieza proiektatuko baita. Era berean, erakusketa-aretoko foyer-aren pantailan, Etenaldia (2020) ikus-entzunezko lana egongo da ikusgai.

Glenda Leónentzat entzuketa ez da ekintza fisiko bat soilik, kontzientzia-forma bat baizik. Horregatik, bere praktikan, soinua eta isiltasuna tresna bihurtzen ditu ikusezina, espirituala eta politikoa dena hautemateko. “Zuhaitz bat basoan erortzen bada eta inor ez badago entzuteko”, errealitatearen eta pertzepzioaren arteko harremanari buruzko dilema filosofikoa da, eta esperientzia sentsorial hori islatzen du.

Kanpoko eta barruko zarataz gainezka egon arren entzuteko gai ez den mundu baten aurrean, Glenda Leónek isiltasuna proposatzen du espazio aktibo gisa. Erronka horrek gorputzarekin eta ingurunearekin berriz konektatzera gonbidatzen du, inor ohartu gabe erortzen den zuhaitz hori egungo gizartearen eta gizabanakoen metafora bihurtuz. Hortik abiatuta, proiektu hau entzuketa berritu baten aldeko apustu bat da, horrek gaitasuna emango baitigu gertatzen denari zentzua emateko, ezkutuan dagoena agerian jartzeko eta pertzepzioa ezagutza-modu bihurtzeko.

Zuhaitz bat basoan erortzen da Glenda Leónen bakarkako lehen erakusketa izango da Bilbon, baina ez da Azkuna Zentroan bere lana erakusten duen lehen aldia. 2019an, *Nunca real / Siempre verdadero* erakusketa kolektiboan parte hartu zuen, zeinak artearen eta literaturaren arteko sinbiosia landu zuen, 13 artistaren begiradaren bidez.

AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

Argitalpena

Atzera begirako honetan *Zuhaitz bat basoan erortzen da* argitaratzen da. Argitalpena Glenda Leónen ibilbidea zeharkatzen duten ideia, irudi eta prozesuen konstelazio bat da, erakusketatik haratago doana, artistaren mundu sortzaileari buruzko atzera begirako begirada bat eraikitzeko.

Glenda León

Glenda León (Habana, 1976) Habanan eta Madril artean bizi eta lan egiten du. Bere lana marrazkitik bideo-artera zabaltzen da, eta instalazioa, objektua, soinua, argazkia eta performancea hartzen ditu barne. Artearen Historian lizentziaduna da Habanako Unibertsitatean (1999; Kuba) eta Hedabide Berrietako masterra egin zuen Koloniako Kunsthoschule für Medien-en (2007; Alemania).

Artistak ibilbide sendoa egina du nazioartean, eta banakako erakusketak egin ditu Europa, Amerika eta Asiako museo eta arte-zentroetan. Era berean, ospe handiko instituzioen erakusketa kolektibo askotan parte hartu du.

Kubaren ordezkari izan da Veneziako 55. Biurtekoan, eta, gainera, Dakarreko Biurtekoan (Senegal), Habanako Biurtekoan (Kuba) eta Aichiko Hirurtekoan (Japonia) parte hartu du. Pollock-Krasner Foundation Prize saria, Pilar Juncosa Bienal Saria eta Arte Sorkuntzako Sotheby's Saria jaso ditu, baita karrera erdiko artistentzako Cifo Saria ere. Aitorpen ugari jaso ditu, hala nola 2024ko Beken eta Batzordeen CIFO Saria karrera ertaineko artistaren kategorian (2023), Pilar Juncosa Bienal Saria eta Sorkuntza Artistikoko Sotheby's Saria (2021), DKV Saria (2020), Pollock-Krasner Foundation Grant Saria (2020, 2005) eta LARA Saria (2017).

Bere lana bilduma publiko handien parte da, esaterako, Centre Pompidou (Paris, Frantzia), The Museum of Fine Arts (Houston, AEB) eta Musée des Beaux Arts (Montreal, Kanada) instituzioena.

Honen laguntzarekin:

VOLOTEA

Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak
prentsa@azkunazentroa.eus
Tel. +34 648 773 373